

BOTOIEN KAXA IPUINAREKIN EGITEKO JARDUERAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukiak

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1. eta 2. blokeak

Inguruaren ezagutza: 3. blokea

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena: 1., 2., 3. eta 4. blokeak

BOTOIAK

Beharko dugun materiala

Botoien txantiloak eta koloretako pinturak.

Aurretiazko oharra




Ipuineko protagonistak aurkezteko, eman haur bakoitzari botoi-txantilo bat, margotzeko. Lau ereduak modu orekatuan banatzen saiatu.

Botoiak kolorearen arabera sailkatu beharko dituzue, ipuinean bezala, sei koloretako pinturak bakarrik eman (urdina, beltza, orlegia, gorria, horia eta laranja).

Botoiak, margotu ondoren, 2. jardueran erabiltzeko gorde.

Garapena

- Esan neska-mutiei ipuineko protagonistak botoiak direla, eta ipuina irakurri baino lehen ezagutuko dituztela.
- Eman haur bakoitzari botoi-txantilo bat eta esan margotzeko.
- Botoi guztiak margotu ondoren, eser zaitezte biribilean, eta haur bakoitza joan dadila besteei bere botoia erakusten.
- Jaso botoi guztiak eta gorde 2. jarduerarako.



IRAKURKETA-FITXA: BOTOIEN KAXA

Beharko dugun materiala

Botoien kaxa ipuina.

Berokiaren marrazkia, paper jarraitua eta oihala.

Botoien kaxa eta koloretako botoiak.

Zeloa edo blu tack.

Musika.

Aurretiazko oharra

Ipuina irakurri baino lehen, material batzuk prestatu beharko dituzue, ipuina kontatzean neska-mutilek ere parte har dezaten:

Haur bakoitzak 1. jardueran dekoratutako botoiak.

Eranskinetako txantiloian oinarrituz, marraztu berokia paper jarraituan, eta zintzilikatu ikasgelan, ondo ikusten den leku batean. Ipuinean bezala instalatu egon dadin, jarri gainean oihal zati bat edo paper jarraitu pixka bat.

Kartoizko kaxa, barruan botoiak kolorearen arabera sailkatuta dituela. Ipuinaren kontakizunean hurrek ere parte har dezaten, banatu paper hauek:

- Berokiaren estalkia kentzeko: 2 ordu.
- Gainerako neska-mutilei, sei koloretako botoiak banatu: urdinak, beltzak, orlegiak, gorriak, horiak eta laranja.

Garapena

- Esan neska-mutilei ipuin bat irakurriko diegula eta bertan denek hartuko dutela parte; hortaz, adi egon beharko dute, gure jarraibideak betez noiz jardun behar duten jakiteko.
- Jarri neska-mutilek beren botoiaren kolorearen arabera multzokatuta, baina denak elkarrekin, kaxa batean baleude bezala.
- Ipuina kontatu, pertsonaia bakoitzari dagokion unean arreta eskainiz. Horretarako, narrazioan aurrera egin ahala, dagokion pertsonaia dagoen lekura hurbildu.
- Ipuinaren amaieran, botoi guztiak elkarrekin bizi direla ospatzeko, musika jarri eta dantzatu.
- Bukatzeko, hausnartu ipuinaren edukiaren inguruan, honelako galderen bidez:
 - Zein koloretakoa da Nekaneren berokia?
 - Zergatik uste dute botoi urdinek besteak baino garrantzitsuagoak direla?
 - Zergatik uste dute atzeko botoiek eta ordezkoez garrantzi gutxi daukatela?
 - Zer esan die botoi txikiak beste guztiei?
 - Zer botoi aukeratu ditu Nekanek berokirako?
 - Kaxako botoiak kolorearen arabera sailkatuta al zeuden?



- Zer gertatu da kaxan, ikustean Nekanek forma eta kolore guztietako botoiak aukeratu dituela berokian jartzeko?
- Aukeratutako botoiak (kasu honetan, berokirako) gainerakoak bezain garrantzitsuak al dira?

BOTOIEN KAXA

Neska-mutilek kolorearen arabera taldekatuta egon behar dute.

Gaurkoa egun berezia da
Nekaneren jostundegian,
berhala jakingo baitugu
zertan aritu den lantegian.

Soineko bat ote da?
Zetazko gona bat, agian?
Inork ez daki zer dagoen
oihal handiaren azpian.

Botoien kaxan
urduri daude denak.
Zurrumurruak entzuten dira:
«Estalita dagoen hori zer ote
da?».

Halako batean, Nekane,
kendu egin du estalkia...
Beroki eder bat da,
zerua bezain urdina!

Botoi urdinak
txaloka hasi dira,
berokia urdina denez
joango direlakoan haien bila.
**Botoi urdinak dauzkaten
haurrak pozez jauzika hasiko
dira.**

Gainerako botoiak
triste jarri dira.
«Ez garenez urdinak,
Nekane ez da jarriko guri begira¹».
**Triste daude urdinak ez diren
botoiak dauzkaten umeak.**

Urdinak harrotu egin dira,
onenak direla sinetsita:
«Zeinen ederrak garen!
Bai garela politak!».

«Nik atzean egon behar dut,
oihalak eusten tinko,
baina ezkutatuta egongo naizenez,
inork ez nau ikusiko».

«Okerrago egongo naiz ni,
denen ordezkoa izango naizelako.
Bakoitza bere lekuan egonez gero,
ez naiz kanpora sekula aterako».

¹ Botoi beltzek esaten dute hori.

(Hurrengo lau paragrafoak botoi txiki batek esango ditu).

«Ez du axola non gauden;
ez izan ezeren beldur.
Denok gara garrantzitsuak,
denok lagun dezakegu».

«Zer gertatuko litzateke
botoi bat galduko balitz?
Beste botoi bat jarriko lukete,
hariarekin josiz».

«Denek ikusten dituzte
aurrealdeko botoiak,
baina ezkutatuta daudenak ere
behar ditu berokiak».

«Oraindik ez dakigu ze botoi
hartuko dituen aurrean jartzeko,
baina denon beharra dauka
berokia janzteko».

Hara zer erabaki zuen Nekanek
kaxako botoiak aztertzerakoan:
«Botoi guztiak jarriko ditut,
forma eta kolore guztietakoak».

Botoiak saltoka hasi ziren,
pozaren pozez.
Bai beroki ederra,
hainbeste kolorez!

**Neska-mutilak, ordenean, beren
botoia berokian jartzera joango
dira, eta gero beren taldera
itzuliko dira.**

Ikustean botoi guztiak
ezberdinak zirela,
ikusi zuten gauza bat ikasteko
garaia iritsi zela:

Denak elkarrekin bizitzeko
garaia iritsi zela!
Ikusi zer gertatzen den
kaxa gogoz astintzean.
**Neska-mutilak nahasi egingo
dira.**


Botoiak nahasi egin dira!
Ospatu egin behar da hori!
Jarri musika eta ikusi
dantzan nola hasten diren poz-
pozik.

Egin dantza zuk ere,
eta gogoan izan
taldearen barruan
zuk ere baduzula garrantzia.

Batzuetan aurrean egongo zara;
besteetan atzean,
baina eskuzabala izan beti,
eta baloratu besteak.

Orain, jarri musika ozen
eta has gaitzen dantzatzen!
Denak dantzan hasiko dira.





KANTA DEZAGUN

Beharke dugun materiala

Botoiak abestiaren [audioa](#) eta letra.

Aurretiazko oharra

Jarduera honetan, abesti baten bidez, sendotu egingo dugu ipuinaren edukia eta aurreko jardueretan landutakoa.

Garapena

- Gogoratu ipuina eta ipuinaren edukia.
- Jarri abestia eta esan abestiaren mezua adi-adi entzuteko.
- Erakutsi neska-mutilei abestiaren errepika, eta uler dezatela bere esanahia. Adibide gisa, ipuinean gertatutakoa eta 4. jardueran landutakoa har dezakezue:

**Aurrean egotea ez da garrantzitsua,
denek egiten baitute ekarpena.
Aurrean egotea ez da garrantzitsua,
bihotza da axola duena.**

- Ikasturtean zehar, indargarri modura erabili abestia, mezua gogoraraztea merezi duen egoera bat sortzen den bakoitzean.

BOTOIAK abestiaren audioa

Bai egun ederra gaurkoa!
Ia prest dago Nekaneren berokia!
Botoiak besterik ez zaizkio falta.
Kaxan daude denak, ateratzeko irrikaz.

Tamainaren, formaren eta kolorearen arabera,
saillkatuta daude botoi guztiak;
inork ez du atzean geratu nahi,
denek egon nahi dute bistan.

Errepika:
**Aurrean egotea ez da garrantzitsua,
denek egiten baitute ekarpena.
Aurrean egotea ez da garrantzitsua;
bihotza da axola duena.**

Botoi txikiek uste dute
kaxan geratuko direla betiko;
eta urdinek pentsatzen dute
inork ez diela irabaziko.

Nekaneri, ordea,
botoi guztiak gustatzen zaizkio.
Denak jarriko ditu berokian,
kaxan ez du bat ere utziko.

Errepika:
**Aurrean egotea ez da garrantzitsua,
denek egiten baitute ekarpena.
Aurrean egotea ez da garrantzitsua;
bihotza da axola duena.**

